

Sustraiak



**Iparaldeko mugimendu
abertzalearen Historiaren haritik**

**Voyage à travers l'Histoire
du mouvement abertzale d'Iparalde**

Aurkibidea - Sommaire

Sarrera	3
Introduction	6
 Les tout débuts (1960-1975)..... (<i>Kristiane Etchalus</i>)	9
 Regard sur l'abertzalismo des années 70 en Iparralde)..... (<i>Arnaud Duny-Pétré</i>)	33
 Kantaldiak 60 eta 70 hamarkadan..... (<i>Pantxo Carrere</i>)	75
 1960 - 70eko Kantagintza berria	81
  Kantua, kontzientziazioa eta abertzale borroka	91
	(<i>Etxamendi - Larralde</i>)

© Liburuxka honetan jasotzen diren testuak egileen jabegoan daude

Argitalpena: Manu Robles-Arangiz Institutua Fundazioa
Cordeliers Karrika, 20
64100 BAIONA
www.mrafundazioa.org
www.mrafundazioa-alda.org

Inprimaketa: Bilbo-Graf
ISBN: 978-84-935380-9-5
Lege gordailua: BI-709-08



Sustraiak Saila 1. zenbakia
2008ko martxoa

50 hamarkadaren bukaeran Frankismoak hego Euskal Herria bere zama izugarriaren pean zapaltzen du, iparraldeko Euskal herritarrek alienazio molde gaitzenetariko bat pairatzen duten bitartean, direnaren ahalgearena. Euskal hizkuntza eta nortasuna, garai horretako gizartea sekula baino fite-ago eta sakonkiago aldatzen duen modernitatearekin egoki ezina den gibelapen baten lekukotasunak balira bezala da. Arrakasta, aitzinamendua, frantsesak dira eta Estatu jakobino (eta urte haietan zinez ibiltzen den igogailu errepublikano) horri esker da. Honek, gu frantsestuz, gure aitzineko belaunaldiek jasan behar izan dituzten bizi baldintza gogor eta pobrezia baino askoz liluragarriagoa den etorkizun horretara heltzeko "xantza" eskaintzen digu.

Kontra korronteka :

*Orduan da sortuko gaur egun ezagutzen dugun Iparraldeko mugimendu abertzalea. 1956 eta 1963 artean, militante kopuru ttipi batek honen oinarriak jartzen ditu, Enbata aldizkaria lehenik, eta ondotik izen bera izanen duen mugimendua sortuz. Michel Burucoa, Michel Labéguerie, Piarres Larzabal, Ximun Haran, Jakes Abeberry, Michel Eppherre, Jean-Louis Davant deitzen dira. 1963ko apirilaren 15ean, gehiago izanen dira Aberri Eguna lehen aldikotz Iparraldean ospatzeko eta euskal herri batua-
ren soberania eskubidea aldarrikatzeko Itsasuko Hitzarmenaren bidez. Iparraldeko Euskal herritar bat, Ximun Haran, eta ETAko sortzaile bat ere den hegoaldeko Euskal herritar batek, Julen de Madariagak, Gernikako arabolatik hartutako haritza kimu bat landatzen dute.*

Lehen oinarri kolektibo hauek zinezko izari aitzin-ikuskari batekin pausatua dira. Ebidentzia guzien kontra garai hartako, arrunt orduko korrante guzien kontra, kasik mende erdi bat berantago, gaur egun oraindik gureak diren printzipio sortzaileak eta perspektiba estrategikoak aldarrikatzen dituzte.

CED/DEE, Defentsarako Europar Erkidegoaren proiektuak porrot egin du, Merkatu Batua doi-doi abiatzen da eta urte haietako militante nazionalisten eredu nagusia, Heren Munduan dauden independentzia nazionalaren aldeko mugimenduetan oinarritzen den askapen nazionalerako borrokarena da. Enbatako militanteek halere, berehala perspektiba europar federalista baten alde jotzen dute.

Aitzindari hauek PNVEk hegoaldean dituen erreferentziak (Jaingoikoa eta Lege Zaharra) edo iparraldean den Aintzinakoen euskaltasun katoliko

eta kontserbatzailearenak bere egin ditzakete. Herritarrak Euskaldunak eta Fededunak dira, ezin da euskaldun izan giristinoa izan gabe ! Eta Iparraldeko aitzindari abertzaleen artean, apez, seminarista eta bertze parrasta bat aurkitzen da. Alta, Enbataren lehen eztabaida garrantzitsuenetako bat mugimendu honen hastapenetik beretik izanen da laikotasuna hautatzea. Iparraldeko borroka abertzalea laikoa eta progresista izanen da.

Arrunt garai horretako pentsamolde guzien aurka zioan beste ideia bat zen Enbatako militanteek aldarrikatzen zutela ipar Euskal Herriaren etorkizuna, hego Euskal herrira buruz eginez baizik ez zela segurtatuko. Gaur egun hain agerikoa iduri duena garai hartan ezin ulertuzko heresia zen : Frankismo garai ilun hartan, hego Euskal Herria azpigaratua da. Hego Euskal Herriko bideak egoera negargarrian dira, 60 hamarkadaren bukaerara, garraioa oraindik usu asto eta mandoz egiten da. Egun guziz, milaka jendek muga iragaiten dute Iparraldean lan egiteko, bertan bizi-maila anitzez hobea baita. Eta alta, hainbat denboraz Hegoaldeko abertzale anitzek Iparraldea " Frantzia " deitzen badu ere, Iparraldeko abertzalismoa sortzetik beretik, borrokaren ikuspegi nazional batetan sartzen da. Enbatako militante batek, bilkura baten bukaerara, ekuazio famatua asmatuko du : $4+3=1$. Laster, ipar Euskal Herriko pareta guzietan idatzia izanen da.

Hautzaro mugimendutsua :

Iparraldeko abertzale mugimenduaren hautzaroa 60 eta 70 hamarkadetan luzatuko da. ETaren sortzearen ondorioz, 1959an, lehen errefuxiatuak etortzen dira Iparraldera. Hego Euskal Herriko belaunaldi abertzale berriak -klandestinitate osoan- hartu dituen sukar ideologikoa eta kulturak, bistan denez, laster Iparraldea ere hunkituko du. Deskolonizazio uhain batek Heren-Mundua zeharkatzen du, eta Algeriako gerlak armadan diren Iparraldeko Euskal herritar gazte batzuen kontzientzia sakona azkarki galdetkatuko du. Gazteriaren exodo ekonomikoak segitzen du eta Iparraldeko industria tradizionalak (Bokaleko Burdinolak, zapatagintza Hazparnen...) krisi sakonak ezagutzen dituzte. 68ko Maiatzak ezarritako ordena inarrosen du, ideia federalistak, autogestioaren aldekoak garatzen dira. Ezker muturreko eta mugimendu alternatiboek, ekologia politikoaren jalgitzea eta Frankismoaren aurkako euskal erresistentziaren garai onenek markatzen dute 70 hamarkadaren hastapena. Batzutan ahantziak diren beste eragin anitzi esker, Enbataren ideologia eta ipar Euskal Herriko borroka abertzalea moldatuko da : Israel Estatu berriaren kibboutzimak, dinamika soberanistak Québecen, autogestioa Yougoslavian, etab... etab...

Horri eta beste hainbat gauzei esker, Iparraldeko Euskal Herriak bakea lortu du berekiko, bere burua den bezala asumitzen eta hortik goiti haren geroa beregain hartzen. Horrek guziak du hemen mugimendu abertzale

progresista bat sortu, "Zazpiak Bat" proiektu nazional baten inguruan eta munduko beste herriekiko ikuspegi internazionalista eta solidario baten inguruan. Horri esker sortu da mugimendu abertzale bat ez zuena denbora salatzen eta aldarrikatzen iragaiten, egun handia edo biharamun hobeak igurikatzen, baina bai guk nahi dugun Euskal Herria eta gizartea konkretuki eraikitzen hemen eta orain.

Sustraiak

Azken hiru urte hauetan, Manu Robles-Arangiz Fundazioak, Sustraiak izeneko mintzaldiak antolatu ditu, molde iraunkorren ipar Euskal Herrian antolatzen dituen formakuntza asoziatibo eta militante programaren baitan. Abertzale mugimenduaren hastapeneko (60 eta 70 hamarkadak) aktoreen lekukotasunak dira. Hauek, izan dituzten ibilbide pertsonalen bitartez, Iparraldeko mugimendu abertzalearen Historia kontatzen zигuten.

Politikan, kulturgintzan edo euskararen defentsan, laborantza sindikalgintzan edo errepresioaren aurkako borrokan, garapen ekonomikoan eta borroka armatuan emandako engaiamendu horien kontakizunak argitaratzen ditugu, hainbeste ikaskuntza eta gako eskaintzen dizkigutelako, gure iduriko, gure gaur egungo borroka hobeki ulertzeko eta biharko batailak hobeki prestatzeko.

Erregulariki publikatuak izanen dira heldu diren hilabete eta urteetan, horretarako Manu Robles-Arangiz Fundazioak bereziki sortu duen Sustraiak bilduma baten baitan.

Lekuko guzi horiek eskertu nahi ditugu hemen, haien denbora eta oroitzapenak, haien gogoeta eta azterketak eskaini dizkigutelako. Irakurleak ez du aherentzi behar ez direla hemen argitaratuak izateko asmoz idatziak izan diren testuak, baizik eta ahoz emanak izan diren mintzaldi batzuen transkripzioak. Lekukotasun hauek, batzutan arrunt inprobisatuak ziren eta mintzalaritari aitzinetik pasatu genizkion zerrenda batzuen inguruan osatuak. Besteak berriz, prestatuagoak eta landuagoak izan ziren.

Espero dugu testu hauen argitalpenak ez duela bakarrik lagunduko gure iraganaren ezagutzen, baina lagunduko gaituela gure etorkizuna hobeki prestatzen, Euskal Herriko izena hartzen duen munduko leku honena, gure arbasoek eskainia eta gure haurrei mailegatu dieguna.

Txetx Etcheverry

Manu Robles-Arangiz Fundazioaren
Iparraldeko Arduraduna

Enbata

HEBDOMADAIRE
POLITIQUE BASQUE
25 octobre 2007
N° 2000
1,22 €

Numéro spécial



n° 2000

Un demi-siècle de
combat abertzale

ISSN 0991-9894
947026439000



Un moment du week-end Sustraiak à Bidarray en mai 2005



Sustraiak kantaldien garaia hitzaldia
Manu Robles-Arangiz Fundazioaren egoitzan



Arnaud Duny-Pétré à la Fondation Manu Robles-Arangiz le 30 décembre 2006



Etxamendi ta Larralde, Pantxoa ta Peioa Manu Robles-Arangiz
Fundazioaren Baionako egoitzan



Etxamendi ta Larralde, Pantxoa ta Peio,
2006ko abenduaren 27an MRA Fundazioan



Kristiane Etchalus le 14 mai 2005 au stage Sustraiak de Bidarray